

NIKARAGUA'RA

BIZKAITIK

Bizkaian beti izan dira elburu bategaitik euren buruak ukatu eta Jesukristo'ren Ebanjelioari euren bizitzako indarrak eskini dautsoezan gizaundiak.

Oneitariko bat lez agertu jaku Leturiaga'tar Agustin, Arrankudiaga"ko parrokia itzi eta biotz zabalaz Nikaragua'ra joan jakuna, Jesus Barri Onaren zabalzaillea ango biztanleak geiago ezagutu dagien.

* * *

ERRITARREN LANAK

Abade on au Arrankudiaga'ra orain amaika urte etorri zan. Lenago apostolu laneko oinkadak Ugao'n emon ebazan, 1974'an abade egin zanetik, baiña an ba-egoan txanburua eta ez eukan zeregin aundirik mezea esan, errosarioa errezau, gaiso ta zarrai ikustaldiak egin, umeai kristiñau ikasbidea irakatsi eta eleiz-jakintza buruan erabilli baiño.

Eta gaztea zan lez, lan geiago nai eban. Zertan?

Burura etorri jakon Jesus bere Irakasle ona gazta-roan, Aitak emon eutsan gorengo eginkizuna, Barri Ona zabaltea eta mundua ber-erostea, egin baiño lenago arotz-lanean ibilli zala, eta bera be asti-aldietan lan onetan ibiltan asi zan, "eleiztarren eta erritarren zeregin, neke, ardura izerdietan eskuartu egian".

* * *

ARRANKUDIAGA'N

Otoitz egin eta lanik ez, edo, bardin dana, sinismena egite barik, illa da edo naiago izan ezker, "Jaungoikoari otoitzean eta mailluagaz tunkutean", esaldi orreik abade gorputz-txiki ta urduriagan eragilleak izan ziran eta bere filosofi-zentzuna labur-labur agertzen eben.

Agustin'ek Arrankudiaga'ra eldu zanean lenengo egin ebana gizarte-etxea aurrera bidean jartea izan zan, antxe erri zeiazen jakintza era atsegingarrian lortu daiten, guztiak deitu eta batuta.

* * *

AGURRA

Mezan agur egin eban abade onak, Agustin'ek, eta meza-ostean lareun lagunuen arteko bazkaria egin eben eta ortxe itzi eban izate sakonaren aztarna ta Iorratza.

Berak esan eban: "Arrankudiaga'ra etorri nintzanean erri au guztientzat izango zan toki bat jasoteko ustean egoan, euskerea, eresa, kirolak eta abar ikasteko elburua izan eta laguntza emon dagian. Eta guztion artean egin genduan".

* * *

JARRAIPENA

Maillua tunkutun bardiñaz dabil gaur gazte batzuen eskuetan, baserriak eta bizilekuak barrizatzen, teilla-tuak eta etxe-aurreak atonduten.

"Nik ez nekian, diño berak, arotz-lana egiten, ikasi egin neban Ian egiñez eta alegiñez, ekiñez, igeltzeruak eta argiñak zelan Ian egiten eben ikusita, geure buruak egin genduzan argin eta orma-egille. Gure langille-talde onetatik Udaletxeak eskatu ebazan langille bik urten dabe eta beste bi sortu doguz. "Danba-Danda" taldea erriak bear dauzan langilleak sortzen dabil. Orain ni emen ez naz bearrezkoa. Gazteak ba-dakie zer egin, euren ogibidea aurkitu eta jarraitzeko".

* * *

BESTE LURRALDE BATERA

Eta orain, ain ongillea dan gure abade onek zer egingo ete dauku?

Argi ta garbi ikusi dau bere goi-deia: Beste lurralde batera abiatu eta otoitz-lanez Jesukristo'ren Barri Ona aldarrikatu ta zabaldu.

Baiña Ebanjelioko Barri Onaren gorengo irakasteak oiturazko oiñarriak bear ditu.

Zeintzuk? Gazteiz'ko arabarra zan Aita Vitoria'k asma-tu eban Erriarteko eskubideen gaiak eskatzen dauzanak edo Bilbo'tarrak diran Ellakuria ta Jon Sobrino'k azaldu daben Askatasunaren Teolojiak agertzen dauzanak.

Leturiaga'tar Agustin misiolari bizkaitarra igazko bagilean joan zan Nikaragua'ra bere Apostolu-lanaren oiñarriak jarri ta eratzten, Erriarteko eskubideak eta Askatasunaren Teolojiak diñoana beteten eta Jesukristoren Barri Onaren azia ereiten, mundu guztian Jaungoikoaren Erreiñua zabaldu daiten.

Bere eleiztar eta lagunakandik erantzun au artu eban: Noiz etorriko zara? Zeuri itxaroten gagoz!

LETONA'k